




Z_{LH6}

2018-2019

Zuzenketa koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:


Ikastaldea/Ikasgela:

Herria:

Data:

**Zientzia
gaitasuna**

Lehen Hezkuntzako 6.a



Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Esate baterako:

Zein da uraren kolorea?

- A. Zuria.
- ☒ B. Gardena.
- C. Urdina.
- D. Berdea.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zein da uraren kolorea?

- A. Zuria.
- ☒ B. Gardena.
- C. Urdina.
- ☒ D. Berdea.

Beste galdera batzuetan esan beharko duzu zerbait egia (E) ala gezurra (G) den, edo puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

Esan ugaztunen 2 ezaugarri:

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

EGUN BAT NAIAREN FAMILIAREKIN

Hau Naiaren familia da: aita, bere anaia Markel eta amona. Laurak elkarrekin bizi dira.



Gaur, Naia urduri baina pozik altxatu da, herrian alzhemerraren ikerketaren aldeko lasterketa antolatu dute. Bere amonak alzhemerra du eta ilusio handiz parte hartuko du lasterketa honetan amona asko maite duelako.

1. Amonak duen gaixotasuna, alzhemerra, nerbio-sistemako gaitza da. Zeri eragiten dio bereziki alzhemerrak?
 - A. Mugimenduari.
 - B. Pertsonaren izaerari.
 - C. **Memoriari.**
 - D. Komunikatzeko gaitasunari.

2. Aitak esan dio alzhemerraz gain, beste hainbat gaixotasunek eragina dutela nerbio sisteman. Gure nerbio-sistema zelula espezializatu batzuk osatzen dute. Zeintzuk dira zelula hauek?
 - A. **Neuronak.**
 - B. Nerbioak.
 - C. Plaketak.
 - D. Axoiak.

3. Adierazi X batez ondorengo esaldiak egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Dendritak nerbio-sistemaren zelulen parte dira.	X	
Nerbio sistema zentrala, entzefaloak eta nerbioek osatzen dute.		X
Bizkarrezur muina bizkarrezurraren kanpoaldean dago eta informazioa garraiatzen du.		X
“Nahigabeko erantzunak” edo “erreflexuak” pentsatu gabe egiten ditugun horiek dira.	X	

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	erantzunak
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen.


4. Kirola egin ondoren gure gorputzak energia berreskuratu behar du. Lasterketa amaitu duenean, Naiak fruta ale bat jan du. Orduan, digestio aparatua martxan jarri da. Zein da digestio aparatuen funtzio nagusia?

.....

.....

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	erantzunak
0	Erantzun okerra edo osatugabea.
1	Holako erantzun bat: - Elikagaiak organismoak behar dituen mantenugaiak bihurtzen ditu. - Elikagaiak mantenugaiak bihurtzen ditu. - Mantenugaiak xurgatzea. - Elikagaiak energia lortzeko eraldatzen ditu.. - ...

5. Naiak aurten ikastetxean ikasitakoa gogoratzen du: “Digestio aparatua digestio hodiak eta digestio guruinek osatzen dute”. Lagundu Naia eta idatzi ondorengo zutabeen atal bakoitzari dagokion zenbakia.



	Zenbakia
Urdaila	3
Heste lodia	5
Uzkia	6
Heste meharra	4
Ahoa	1
Hestegorria	2

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	erantzunak
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4, 5 edo 6 erantzun zuzen.

6. Markelek lasterketan parte hartzen ari zela orkatilan mina hartu du. Haustura, zaintiratua edo dislokazioa izan daitekeenaren susmoa dute. Zertan datza lesio hauetako bakoitza?

Lotu lesio bakoitza dagokion zenbakiarekin.

	Zenbakia	
Haustura	2	(1) Bihurritu batengatik lokailuak lesionatzen direnean, kolpe edo erorketaren ondorioz.
Zaintiratua	1	(2) Hezurak apurtzen direnean.
Dislokazioa	3	(3) Hezurra artikulazioan eduki behar duen lekutik ateratzen denean.

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.

- 7. Zorionez, ez da ezer larririk izan eta ez da lesionatu. Medikuek aholku batzuk eman dizkio hezurak eta artikulazioak garatu eta zaintzeko.**

Adierazi X batez hurrengo aholkuak egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Aldizka ariketa fisikoa egitea ariketei pixkana hasiera eta bukaera emanez.	X	
Aulkian jarrera tente mantentzea bizkarra aulkiaren bizkaraldearen kontra jarrita.	X	
Egunero atseden luze bat hartzea, hau da, 14 eta 16 ordu bitartean lo egitea.		X
Eskolako motxila sorbalda bakarretik zintzilik edo soinean gurutzatuta eramatea.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen.

BAZKALDU BAINO LEHEN MERKATURA

Mediku kontsultatik ateratzen direnean, Naia, Markel eta aita merkatura joan dira. Azokak kalitatezko elikagai freskoak erosteko aukera ematen die etxetik gertu. Asteburu honetan, etxean geratuko dira lan handia dutelako, Markelek gainera atsedena hartu behar du.

8. Baratzerako 2kg-ko konposta zakua erosi dute. Naia eta Markel eztabaidan hasi dira, merkaturako baskulak zer neurtzen duen garbi ez baitute. Zer neurtzen du merkaturako baskulak?

- A. Materiak hartzen duen espazioa.
- B. Masaren eta bolumenaren arteko erlazioa.
- C. Gorputz batek duen materia kantitatea.
- D. Masa eta espazioaren arteko erlazioa.

9. Ondoren, merkaturako tabernan pintxo bat eta baso bat ur hartzea erabaki dute. Naiak duen harri txikia edalontzira erori da. Argudiatuz azaldu edalontzi barruan zer gertatu den.

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatugabea.
1	Erantzun hauetakoren bat: - Edalontziko ura gora igo da. - Harria behera joan da eta urak gora egin du. - Harria behera joan da, hondoratu da.
2	Erantzun zuzena: <i>Harriak ez du flotatu (hondoratzen da, erortzen da), urak baino dentsitate gehiago duelako.</i>

10. Etxera iritsi bezain laster, zaporetako jogurtak izozkailuan sartu dituzte. Horrela fresko-fresko jango dituzte arratsaldean izozki baten moduan. Zer aldaketa mota jasan dute jogurtek?

- A. Aldaketa fisiko itzulgarria.
- B. Aldaketa kimikoa.
- C. Aldaketa fisiko itzulezina.
- D. Aldaketa fisiko eta kimikoa.

11. Adierazi kasu hauetako bakoitzean zein den bertan dagoen energia mota. Idatzi 1etik 5era dagokion zenbakia zutabeak erlazionatzeko.


		Zenbakia	ENERGIA
Garbigailua		3	(1) Mekanikoa
Pilaz dabilen irratia		2	(2) Kimikoa
Eskuko zukugailua		1	(3) Elektrikoa
Pilarik gabeko kalkulagailua		5	(4) Eolikoa
Belaontzia		4	(5) Eguzki-energia

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 edo 1 erantzun zuzen.
1	2 edo 3 erantzun zuzen.
2	4 edo 5 erantzun zuzen.

12. Markelek ondorengo elementuak dituen zirkuitua muntatu du:



Ondorengo zirkuituetatik zeinek funtzionatuko du?



Ez du ezta batek ere funtzionatuko.

13. Energia modu arduratsuan erabili behar dela gogoratu die Naiaren aita. Sailkatu inguruan dituzten baliabideak eta osatu ezazu taula behean dituzun elementuak dagokion zutabean idatziz.

<i>Gasolina</i>	<i>Eguzkia</i>	<i>Ura</i>
<i>Gas naturala</i>	<i>Petrolio</i>	<i>Haizea</i>

ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIAK	ENERGIA ITURRI BERRIZTAEZINAK
Eguzkia	Gasolina
Ura	Gas naturala
Haizea	Petrolio

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4, edo 5 erantzun zuzen.
2	6 erantzun zuzen.

BAZKALDU ONDOREN...

Bazkaldu ondoren etxeko lanen banaketa egin dute. Naiari lorategia txukuntzea egokitu zaio eta landareak ureztatzea. Aitak trastelekua txukunduko du eta Markelek askaria prestatuko du.

14. Haizeak zaborrak ekarri ditu lorategira. Naiak guztiak bildu eta bakoitza dagokion zakarrontzira bota du.

1 Egunkari papera 	2 Plastikozko poltsa 	3 Hostoak 	4 Ogi puskak 
5 Oilasko hezurak 	6 Aluminiozko papera 	7 Edari lata 	8 Beirazko botila 

Jarri zakarrontzi bakoitzean sailkatu behar diren objektuen zenbakia edo zenbakiak (1etik 8ra).

				
Zenbakiak	2, 6, 7	3, 4, 5	8	1

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 4 erantzun zuzen.
1	5 – 6 erantzun zuzen.
2	7 – 8 erantzun zuzen.

15. Landareek ura eta gatz mineralak xurgatu behar dituzte elikagaiak ekoizteko. Zer ataletatik xurgatzen dute ura eta gatz minerala landareek?

- A. Hostoetatik.
- B. Zurtoinetik.
- C. **Sustraiaetatik.**
- D. Enborretik.

16. Lorategiko landareak oso anitzak dira. Sailkatu ondorengo landareak lore-dunak ala lorerik gabekoak diren arabera. Idatzi X bat dagokion leerroan.

	ARROSA	GOROLDIOA	IRATZEA	SAGARRONDOA
Landare LOREDUNAK	X			X
LORERIK GABEKO landareak		X	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzun zuzen.

17. Lorategiko landare gehienak angiosperma dira. Talde honetako ezaugarri bat kolore biziko lore ikusgarriak dituztela da. Zertan lagun ditzake landareak ezaugarri honek?

- A. **Polinizazioa errazten duten animaliak erakartzen.**
- B. Neguko hotza hobeki jasaten.
- C. Hiriko lorategiak neguan apaintzen.
- D. A, B eta C okerrak dira.

- 18.** Lorategian, Naia tximeleta bati begira liluratuta gelditu da. Adierazi X batez tximeleten inguruko ondorengo esaldiak egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Artropodoak dira.	X	
Ez dira arrautzen bidez jaiotzen, hau da, bibiparoak dira.		X
Hasieran beldarrak dira eta ondoren zetazko larba bat (krisalida) sortzen dute tximeleta bihurtu arte.	X	
Sei hego eta lau hanka dituzte.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 ,1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 edo 4 erantzun zuzen.

- 19.** Atzo euria egin zuen eta lorategian putzu bat sortu zen. Gaur eguzkitsu dago eta putzua lehortu da. Zer egoera aldaketa erlazionatuta dago gertatutakoarekin?

- A. Urtzea.
- B. Lurruntzea.
- C. Kondentsatzea.
- D. Sublimazioa.

- 20.** Ondoren, Naia zuhaitzean pausatuta zegoen txori bati begira egon da denbora luzean. Zer ezaugarri definitzen dituzte hegaztiak?

- A. Ornodunak dira, lumak dituzte eta hortzak dituzte.
- B. Mokoa dute, lumak dituzte eta brankien bidez arnasten dute.
- C. Mokoa dute, bibiparoak dira eta biriken bidez arnasten dute.
- D. Ornodunak dira, obiparoak dira eta mokoa dute.

- 21.** Azkenik, Naia erlez inguratuta dagoela konturatu da. Erleak loreetara joaten dira nektarraren bila. Zer harreman mota dute erleek eta loreek?

- A. Harraparitza.
- B. Parasitismoa.
- C. Fagozitazioa.
- D. Mutualismoa.


22. Aitak, trastelekua txukuntzen ari dela, aspaldian galdutako “palanka” aurkitu du. Zer da palanka?

- A. Makina sinplea.
- B. Makina konposatua.
- C. Operadore makina.
- D. Engranaje mota bat.




23. Trastelekuan, familiako argazkia zapaltzen duen kutxa zahar eta astun bat aurkitu du. Zer aukeratan erabili behar da indar gutxien kutxa altxatzeko?

- A. A aukeran.
- B. B aukeran.
- C. Bi aukeretan berdin.
- D. Ez bata ezta bestea ere, ez dira aukera erabilgarriak.



24. Irudian bezalako neurri desberdineko bi engranaje lotzen baditugu, zer gertatuko da martxan jartzen ditugunean?

- A. Bi engranajeak noranzko berdinean mugituko dira.
- B. Bi engranajeek abiadura berdinean biratuko dute.
- C. Engranaje handienak bizkorrago biratuko du.
- D. Engranaje txikienak bizkorrago biratuko du.



25. Bizikleta garbitzen ere aritu da. Adierazi X batez ondorengo esaldiak egia (E) ala gezurra (G) diren.

	E	G
Bizikleta makina konplexua da.	X	
Eskulekuak atzeko gurpilaren norabidea kontrolatzen du.		X
Pedalek platera birarazten dute, pertsonaren indarrez.	X	
Aurreko eta atzeko frenoak bizikleta martxan jartzeko balio dute.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen.

- 26.** Trastelekuan, argazkian ikus daitezkeen antzeko burdinazko erreminta zahar batzuk daude. Zer aldaketa kimiko jasan dute? Zergatik?



.....


.....

.....

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	erantzunak
0	Erantzun okerra edo osatugabea.
1	<i>Oxidazioa edo korrosioa izendatu, baina ez du erantzuna argudiatu.</i>
2	<i>Oxidazioa edo korrosioa izendatu eta erantzuna argudiatu du, oxigenoaren eraginez substantzia bat eraldatzea dela azalduz.</i>

- 27.** Trastelekuan aurkitu duen eraztun baten bolumena ezagutzeko esperimentu bat burutu du, irudian bere emaitza ikus daiteke. Zer bolumen du eraztunak?

- A. 0,3 mililitro.
- B. 3 mililitro.
- C. 4 mililitro.
- D. 30 mililitro.



ASKALTZEKO ORDUA...

Askari osasuntsu batek fruta freskoa izan behar du. Gaurko askarian azokan erosi dituzten marrubiak eta esnea kakaoarekin hartuko dute.

31. Zeren baliokide da kilo erdi bat marrubi?

- A. 500 gramo.
- B. 0,5 gramo.
- C. 250 gramo.
- D. 50 gramo.



32. Lorategian, Markelek marrubi landareetan fotosintesi prozesua gertatzen dela azaldu dio Naiari. Ondorengo esaldiek fotosintesi prozesua zertan datzan azaltzen dute baina desordenatuta daude. Ordenatu itzazu 1etik 4ra zenbakiak idatziz.

	Zenbakia
Izerdi landua landarearen atal guztietara hodian bitartez iristen da.	4
Sustraietan gatz mineralak uretan disolbatzen dira eta izerdi landugabea sortzen da hodi zurkaretatik hostoetaraino igotzen dena.	2
Landareek sustraietako ile xurgatzaileetatik lurrian dauden mineralak eta ura xurgatzen dute.	1
Izerdi landugabea hostoetara iristen denean, airearen oxigenoa eta eguzki energia behar duten erreazio kimiko batzuen bitartez, izerdi landua bihurtzen da CO ₂ askatuz.	3

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen.

33. Hauetako zein da nahaste homogeneoa?

- A. Marrubiak esnegainarekin.
- B. Moldeko ogia txokolatearekin.
- C. **Esnea kakaoarekin.**
- D. Marrubiak txokolatearekin.

34. Esnea kakaoarekin berotzeko hiru material desberdineko hiru ontzi dituzte. Adierazi X batez ezaugarri bakoitzari hobekien dagokion materiala. Ezaugarri bakoitzeko material bakarra aukeratu.


	Materiala		
	METALA	ZERAMIKA	PLASTIKO
Ezaugarria			
GOGORRA		X	
ARINA			X
ERRESISTENTEA	X		
HAUSKORRA		X	
ISOLATZAILE ELEKTRIKOA			X
EROALE ELEKTRIKOA	X		

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 4 erantzun zuzen.
1	5 edo 6 erantzun zuzen.


35. Markeli esnegaina ez zaio batere gustatzen eta aitak prestatutako kakao irabiatuan esnegaina aurkitu du. Zer metodo erabiliko du bereizteko?

- A. Lurrunketa.
- B. Destilazioa.
- C. **Iragazketa.**
- D. Dekantazioa.

- 36.** Naiak organuluak bereizten diren animalia zelula baten argazkia du. Zelularen atal bakoitza dagokion zenbakiarekin lotzen duen taula osatu.



	Zenbakia
Mintz zelularra	2
Nukleoa	4
Zitoplasma	3
Mitokondria	1



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen.

- 37.** Naiak eta Markelek dutxa hartu behar dute. Hurrengo aholkuetako zeintzuk saihesten dituzte etxeko komunean gertatzen diren elektrizitate istripuak? Adierazi X batez onak ala txarrak diren:

	Aholku ONA	Aholku TXARRA
Kablea kaltetuta duten tresna elektrikoak erabiltzea.		X
Tresnak deskonektatzeko kabletik ez heltzea.	X	
Tresna elektrikoak erabiltzean erabat lehor egotea.	X	
Oinutsik zaudela, tresna elektrikoak erabiltzea.		X
Tresna elektrikoak bainuontzi ondoan erabiltzea.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, edo 2 erantzun zuzen.
1	3 edo 4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen.

- 38.** Dutxatu ondoren, sofan eseri dira mugikorrarekin txatean eta sare sozialetan aritzeko. Hurrengo aholkuetako zeintzuk dira sare sozialetan aritzeko eta Interneten ibiltzeko egokiak? Adierazi X batez dagokiona.

	Aholku ZUZENA	Aholku OKERRA
Egiten duzun guztia partekatzea, horretarako dira sare sozialak.		X
Pasahitza errezago gogoratzearen, Interneteko zerbitzu ezberdinetan sartzeko pasahitz bera erabiltzea.		X
Informazioa aukeratzeko irizpide bat izatea.	X	
Sare sozial askotan izena ematea, mundu zabalean ezagutu gaitzaten.		X
Antibirus bat erabiltzea eta aplikazioak, programak eta antibirusa eguneratuta mantentzea.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, edo 2 erantzun zuzen.
1	3 edo 4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen.

- 39.** Oheratu baino lehen, aitak historian zehar izan diren zientzia eta teknologiaren aurrerapenez hitz egin die. Zein da asmakizun hauen orden kronologiko zuzena?
- A. Gorpila, bonbilla, inprenta eta Internet.
 - B. Gorpila, inprenta, bonbilla eta Internet.
 - C. Inprenta, gorpila, bonbilla eta Internet.
 - D. Bonbilla, gorpila, inprenta eta Internet.